



UDALZAINGOA

Tel: 943 00 51 15
Faxa: 943 00 52 05

Gipuzkoa kalea, 32
20800 - ZARAUTZ

udaltzaingoa@zarautz.eus
www.zarautz.eus

Udalerrian taxibus zerbitzua sustatzeko dirulaguntzak emateko 2023ko deialdia

XEDAPEN HAUEK EZARTZEN DITUZTE OINARRI ARAUTZAILEAK:

- Zarauzko Udaleko Dirulaguntzen Ordenantza Orokor arautzailea (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 2022ko otsailaren 21ekoa, 34 zk.).
- Udalerrian taxibus zerbitzua sustatzeko dirulaguntzak emateko oinarri espezifikoak (2023ko martxoaren 15eko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 51 zk.).

Zarautz, 2023ko martxoa



1.- Helburua

1.1. Udalerrri barruko garraio publikoa sustatzeko ekintza bat da, eta helburua du herrigunetik kanpo dauden auzoei garraio-zerbitzua ematea eta bere bizilagunei mugikortasuna erraztea.

Zerbitzua erabili ahal izango dute Zarauzko udalerriko eremu hauetako batean erroldatuta dauden edo erroldatutako enxeetan lan egiten duten herritarrek: lurzoru urbanizaezinen kalifikazioa duten eremuak eta Zarauzko Hiri Antolamenduaren Plan Orokorreko 19 (Talaimeendi), 24 (Errotaberri), 25 (Astierreka), 26 (Astazubi) eta 27 (Errotazar) eremuak.

Horretarako bi baldintza hauek bete beharko dira: batetik, autobus-geltokia etxebizitzatik 500 metro baino gehiagotara egotea, eta, bestetik, zerbitzuaren maiztasuna 70 minututik gorakoa izatea.

Zarauzko herriarekin mugakide diren udalerriekin zerbitzu hau erabiltzeko akordioak sina daitezke; horrela bada, dagokion eranskinean azalduko da.

1.2. Herriko autobusak egiten duen ibilbidearen barruan garraio kolektiboa erabiltzeko zailtasuna duten pertsonen ere zerbitzu hau erabiltzeko aukera emango zaie, autobus zerbitzuak ezin dituenetan bete bere mugikortasun beharrak. Kontzeptu horretan sartuko dira garraio publikoak erabiltzeko zailtasunak daudela ebazteko baremoaren barruan, 1971/1999 Errege Dekretuaren 2. eranskineko A), B) edo C) letretan sartuta daudenak (abenduarien 23koa, ezgaitasun gradua aitortu, deklaratu eta kalifikatzeko prozedurari buruzkoa).

1.3. Lanegunetan, astelehenetik ostiralera, 7:00etatik 22:00etara bitartean egindako garraio-zerbitzuetara mugatuko dira dirulaguntzok.

Zerbitzua eskatzeko ordutegia goizeko 9:00etatik arratsaldeko 18:00etara izango da, eta, deia, ahal dela, zerbitzua erabili aurreko egunean egingo da. Telefonoa: 943-13.19.52

1.4. Zerbitzuaren hasiera eta bukaera erabiltzaileak nahi duena izango da, betiere udalerrri barruan egiten bada; gainera, zerbitzu horrek ez du derrigorrez autobus-geltokian hasi edo bukatu beharrik izango.

2.- Finantziak

Ondorengo partidaren kontura ordainduko da taxibusa izeneko zerbitzua bultzatzeko dirulaguntzen zenbatekoa (3.000,00 €): 10901.480.01.441.20 2023 "landa-lurreko garraio zerbitzua" (3.000,00 €).

Dirulaguntzaren zenbatekoa bukatzean, txartelaren onuradunak zenbateko berdina ordaindu beharko du, nahiz eta dirulaguntzarik ez jaso.



3.- Txartel eskaerak aurkeztea

Eskaerak aurkezteko epea 15 egunekoa izango da, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Inprimakiak (I, II, III ERANSKINAK) osorik eta ongi beteta aurkeztu beharko dira:

- Udaletxean (HAZ - Herritarren Arreta Zerbitzua, Kale Nagusia 29): astelehenetik ostiralera, 7:30etik 15:00etara; ostegunetan: 17:00etatik 19:00etara.
- Zarauzko Udalaren zerbitzu telematikoen bitartez:

<https://uzt.gipuzkoa.eus/WAS/AYTO/USCServicioCiudadanoVer15WEB/segundaPag.do>

4.- Txartelak eskuratzeko baldintzak eta mugak

- 2022an txartela eskuratu zuten herritarrek ez dute txartel berria eskatu behar, baina zerbitzuaren eskaera egin behar dute.
- Txartela eskatzen dutenek eskaera egiteko unean egiaztatu beharko dute baldintzak betetzen dituztela.
- Eskatzaile bakoitzari txartel bat emango zaio. Txartelak eskatzeko epea bukatu eta eskaerak aztertu ondoren erabakiko da onuradun bakoitzak urtean gehienez zenbat bidaia egin ditzakeen.
- Txartel bakoitza 2023ko abenduaren 15era arte erabili ahal izango da.
- Udaletxeko Herritarren Arreta Zerbitzuan jasoko dira txartelak, oinarri arautzaileetan eskatutako baldintzak betetzen direla egiaztatu eta gero.

Onuradun izateko debekua:

Oinarri hauetan araututako dirulaguntzak ezingo ditu jaso ondorengo zirkunstantziaren batean dagoenak:

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legeak, Dirulaguntzei buruzkoak, 13. artikuluan aurreikusitako egoeraren batean daudenak.
- Uztailaren 28ko 26/2015 Lege Organikoak jarritakoaren arabera, sexu-delituengatik zigor administratiboak, laboralak edo penalak jaso dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoak.
- Emakume eta Gizonen Benetako Berdintasunari buruzko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan eta Emakume eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legean jarritako betekizunak betetzen ez dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoak.
- Emakume eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioaren aurkako helburuak, sarbide-sistemak, funtzionamendua, ibilbidea, jarduera, antolaketa



edo estatutuak dituzten, eta sexuaren, ideologiaren, jaioterriaren, nazionalitatearen edo sexu-joeraren ziozko diskriminazioa egiten duten pertsona fisiko nahiz juridikoak (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Zarautzko Udal Ordenantzaren 38. artikulua).

- Berdintasunerako eta sexuagatik diskriminatuta ez izateko eskubidea urratzeagatik zigor administratibo, laboral edo penalak jaso dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoak (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Zarautzko Udal Ordenantzaren 38. artikulua).

5.- Dirulaguntzak esleitzeko eta zenbatekoa zehazteko irizpideak

- Dirulaguntzak emateko, fakturaren sistema erabiliko da. Interesdunek eskaera egingo dute, eta onuradunei txartel bat emango zaie. Eskaerak onartutakoan, onuradun guztien artean banatuko da dirulaguntza, eta onuradun bakoitzak gehienez bidaia kopuru bat izango du urtean.
- Taxi-zerbitzua egitean, erabiltzaileak txartela erakutsiko dio gidariari, eta zerbitzua ordainduko du, eta jasotzen duen faktura gorde beharko du Udalean aurkezteko.
- Udalerrriaren barruan egindako taxi-zerbitzurako 8,29 euroko prezioa aurreikusi da, eta udalerritik kanpo egindakorako 14,92 eurokoa. Dirulaguntzaren zenbatekoa bukatzean, txartelaren onuradunak zenbateko berdina ordaindu beharko du, nahiz eta dirulaguntzarik ez jaso.
- Udalak zerbitzuaren erabiltzaileari dagokion zenbatekoa ordainduko dio, aurreikusitako egunetan erabilitako zerbitzuen justifikazioa aurkezten duenean. (=Erabiltzaileak ordaintzen duena - autobusaren tarifa arruntaren balioa)

6.- Dirulaguntzak eskatzeko epea

Dirulaguntzen eskaera Udaleko Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan edo telematikoki aurkeztuko da ezarritako epeetan, eskaera eta fakturak aurkeztuz:

- Ekainaren 1etik 15era
- Irailaren 1etik 15era
- Abenduaren 1etik 15era

7.- Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko agiriak

- Eskaerarekin batera ondorengo dokumentazioa aurkeztu beharko da:
 - Zerbitzuaren erabiltzaileak txartela lortu ahal izateko:
 - Eskaera-orria (I. eranskina)
 - Interesdunaren NANaren fotokopia.



- Desgaituen kasuan, mugitzeko desgaitasun maila frogatzeko dokumentazioa, edo, bestela, zerbitzuaren erabiltzaile izateko beharra adierazten duen agiria, Udaleko Gizarte Zerbitzuek emana.
- Argazki bat.

Norbaitek eskaera aurkezten badu 1.1 oinarrian jasotzen den baldintza betetzen duelako, Udaleko ordezkariak berak egiaztatuko du baldintza hori betetzen ote duen.

- Zerbitzuaren erabiltzaileak dagokion dirulaguntza lortzeko:
 - Eskaera-orria (II. eranskina)
 - NANaren fotokopia.
 - Erantzukizunpeko aitortpena (III. eranskina).
 - Taxistaren faktura (erabilitako zerbitzu bakoitzarena).

8.- Txartelaren erabilera

- Txartela pertsonala eta besterenezina da.
- Behin txartela eskuratuta, hurrengo urteetarako balioko du, baina, hala ere, onuradunek urtero egin beharko dute zerbitzua erabiltzeko eskaera. Eskaera egiten ez badute, txartela itzuli beharko dute.
- Txartela duen onuradunak hura zaindu eta kontserbatzeko erantzukizuna izango du, txartela arduraz erabiliko du, eta galtzen badu edo kentzen badiote, horren berri eman beharko du udaletxeko Herritarren Arreta Zerbitzuan edo telematikoki; eta 5 euroren truke, txartel berria emango zaio.

9.- Dirulaguntzen ebazpenak

Alkatetzak edo organo delegatuak izango du dirulaguntzak emateko edo ukatzeko ebazpena egiteko eskumena. Instruktoea Udaltzaingoko Departamentuko arduraduna izango da, eta ebazpena alkatetzari edo Tokiko Gobernu Batzarrari egokituko zaio, Udalaren administrazio-antolamenduan une bakoitzean indarrean diren eskumenekin eta aldi bateko eskuordetzekin bat etorritz.